



## Txotx egiteko zure txanda, Gurutzeta Sagardotegian

ASTIGARRAGA PUBLIERREPORTAJEA

Aurten, txotx denboraldiari hasiera ematen, AMAK taldeko musikariak izan ditugu Astigarragako Gurutzeta sagardotegia. Orain, zuen txanda da!

Astelehen gauetan eta asteartetik larunbatera eguerdi eta gauetan irekiko dugu, 13:30-17:30 eta 20:00-00:00, eta ohiko aukerak berreskuratu ditugu: betiko menu tradizionala, 26 euroko menu murriztua astelehen, astearte eta ostegunetan; bakailaoa saltsan edo xapoa, enkarguz; eta otxoteek girotutako asteazken gauak, otsailaren 23tik aurrera.

Iaz ikasitakoarekin, egoerara egokitzen jarraitzen dugu, baina belaunaldiz belaunaldi jasotako tradizioaren goxotasuna mantenduz. Oraingoan, 10 laguneko taldeetan eta eserita egin beharko dira otorduak, eta mahaiko kide bakarra altxa ahal izango da txotx egitera. Baina, aukeran izango duzue Gurutzetako kalitatezko sagardoa, bai Gorenak eta baita Euskal Sagardoa Jatorri Deiturakoa ere. Eta berriro ere martxan dugu kupela gustukoenaren alde botoa eman eta otordua doan irabazteko lehiaketa! Ez galdu aukera, dastatu eta gozatu gure sagardo berria!



**Gurutzeta Sagardotegia**  
Oialume Bidea 63  
20115 Astigarraga

Tlf: 943 55 22 42  
[www.gurutzeta.com](http://www.gurutzeta.com)  
[gurutzeta@gurutzeta.com](mailto:gurutzeta@gurutzeta.com)

## 'Barre egin Petritegin!', gaur iluntzean

ASTIGARRAGA IKUSKIZUNA

Sagardotegi denboraldi berriari ongi etorria emateko umorezko gaua antolatu du Petritegi sagardotegiak. Barre egin Petritegin! ikuskizuna aurkeztuko da, iluntzeko 19:30etan bertako bakarriketalari onenekin. Bertan izango dira Aitor Ferdinando, Alfonso Díez, Ibon Belandia, Maria Urzelai eta Getari Etxegarai.